

Garapenerako hezkuntzaren diagnostikoa eta erronkak Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sisteman



Coordinadora de ONGD de la
Comunidad Autónoma Vasca /
Euskal Autonomi Erkidegoko
GGKEen Koordinakundea



centro unesco euskal herria
centre unesco pays basque
unesco centre basque country

UNESCO Etxea - Centro
UNESCO Euskal Herria

AURKEZPENEA

Azterketa hau UNESCO Etxeak eta EAEko GGKEen Koordinakundeko Bizkaiko Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntza Taldeak, ikastetxeekin, GGKEekin eta berritzeguneekin elkarlanean, urte eta erdiz egin duten lanaren emaitza da.

Ekimen hau garapenerako hezkuntzan parte hartzen duten EAEko eragile askok izan eta adierazi duten beharraren esperientziaren ondorioz sortu da; izan ere, eragileok partaidetzazko diagnostikoa egin beharra antzeman dute, alor honetan egiten ari diren jardueren egungo egoera ebaluatu eta, hartara, egoera hori hobetzeko estrategiak diseinatzearen guztion artean.

ESPARRU TEORIKOA

- Zer hartu dugu garapenerako hezkuntzatzat? Garapenerako hezkuntza, garapenari buruzko hezkuntza eta hezkuntza garapen gisa.
- Iturri teorikoak: herri hezkuntza, pedagogia kritikoa, hezkuntzaren eredu konstruktibista, ikerkuntza eta partaidetzazko ekintza ereduak.
- GHren helburuak
- GHren bilakaera: 1) Hegoaldearekiko sentikortze gisa; 2) elkartasun gisa; 3) ekintza kritiko, emantzipatzaile eta oso gisa.
- GH hezkuntza sisteman.

METODOLOGIA

- 1. ETAPA: GH-REN DIAGNOSTIKOA
 - Zer jakin nahiko genuen?
 - Nola bildu eta aztertu genuen informazioa?
 - ✓ Azterketa bibliografikoa
 - ✓ Inkesta GGKEei
 - ✓ Elkarrizketa ikastetxeei
 - ✓ Eztabaida taldeak
 - ✓ Eztabaida bilera

- ✓ Elkarrizketa berritzeguneei
- ✓ Diagnostikoaren zirriborroa egin eta itzultzea

■ 2. ETAPA: GH-REN ERRONKAK

- Zer jakin nahi genuen?
- Nola bildu eta aztertu genuen informazioa?
 - ✓ Hobekuntza proposamenei buruzko eztabaida taldea
 - ✓ Galdeketa osagarria

DIAGNOSTIKOA

- Zer hartzen da GHtzat?
- Definizioa
- Balioak eta jarrerak → 3 eragin maila: pertsonala, sozio-kulturala eta egitura eta erakunde arlokoa.
- Gai giltzarriak → 3 gai multzo: “Hegoaldeari dagozkiola jotzen den alderdiak”, “Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremana” eta “ikasleen eguneroko bizitzaren alderdiak”.
- Hezkuntza sisteman GH hautematen den modua
- Ikastetxeak, GGKE eta berritzeguneeak
- GH ikastetxeetako politikan
- GHren eragileak hezkuntza formalean
- Ikastetxeko zuzendaritza taldea, irakasleak, Hezkuntza Saila, berritzeguneeak, Irakasle eskolak, GGKE, familia eta argitaletxeak.
- Metodologia
 - Nola lantzen da GH ikastetxeetan? Jarduera zehatzak – zeharkako ildoak.
 - Zer nolako jarduerak egiten dira? Material didaktikoa, erakusketak, hitzaldiak eta kanpainak, heziketa, senidetzeak, mundilab eta beste batzuk.
 - Baliabideak: eskura daudenak eta eskura ez daudenak.
- Lorpenak
- Zailtasunak

ERRONKAK

1. GH ikastetxeetako hezkuntza proiektuan berriaz sartzea
2. GGKEen arteko eta GGKEen eta ikastetxeen arteko koordinazioa sustatzea, GHrako baliabideak zabaldu eta banatzeko mekanismoak hobetuz.
3. Ikastetxeko pertsona bat zenbait orduz liberatzea, GHren tratamendua koordinatu, GHren tratamenduan hezi eta GHren tratamenduari buruz aholka dezan.
4. GH Irakasle eskoletako diplometan eta antzeko ikasketetan sartzea.
5. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hezkuntza sisteman GHri buruzko proiektuak egitea finantzatzeko deialdi ofiziala egitea ikastetxeei eta GGKEei.
6. GGKEetako eta ikastetxeetako ordezkariak eratu duten eta berritzeguneei koordinatuko duten lan batzordea osatzea, GHren edukietan eta metodologietan adostu eta mobilizatzen diren prozesuak batera ebaluatzearen.
7. Hezkuntzaren alderdi guztiak elkarren artean harremanetan jartzea: hezkuntza forma, hezkuntza ez-formala eta hezkuntza informala.

ONDORIOAK

- GH hezkuntza sistemako eredu pedagogiko gisa aplikatzeko interesa eta kezka handitu egiten ari da: GGKEek ikastetxeetan parte hartzen dute eta hezkuntza arloa engaiatu egiten da.
- GH, eduki jakin batzuk lantzeaz gain, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ulertzeko modua ere bada; harekin bat, “nola”, “zer” eta “zertarako” kontzeptu garrantzitsuak dira.

- GH alderdi ugariz osatuta dago, eta alderdiok programa espezifikoaren eta osagarrien (bakerako hezkuntzaren, kultur arteketasunaren, baterako hezkuntzaren, ingurumen hezkuntzaren...) bitartez jorra daitezke.
- GHk hezkuntza formala gainditu eta hezkuntza ez-formala eta hezkuntza formala hartu behar ditu; ikastetxeek hurbilen duten ingurunean murgildu behar dute eta, era berean, ingurune horrek ikasgelan sartu behar du.
- Eragileek eta finantzazio iturriek baliabide gutxi bideratzen jarraitzen dute eta, askotan, GH garapenerako lankidetzaren zatitza hartzen da, elkartasunezko lankidetzat hartu beharrean.
- Sentikortze prozesuak eragile bakoitzaren ezaugarrietara eta ingurunera egokitu behar dira: Hezkuntza Sailak arau koherenteak onartu behar ditu, zuzendaritza taldeek erakunde babesa eman behar diete ikastetxeetako ekimenei eta irakasleek GH eredu pedagogiko gisa aplikatu behar dute, euren lanarekiko paraleloak diren eduki jakinak landu ordez.
- Ebaluazioak bazter jarraitzen duen arren, gero eta esperientzia gehiagok sartzen dute gizartea eraldatzeko prozesuetan.
- Irakasleek informazio eta eduki mugatuaren transmititzailerik izateari utzi diote eta bilaketaren, analisiaren eta pentsamendu kritikoaren alorreko prozesuak bideratzen ari dira ikasleen artean. Aldaketa hori ikusi egiten ari da ikastetxeetan.
- Gizarteak Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremani eta tokikoaren eta mundu mailakoaren arteko eraginari buruz ematen dituen ereduak ez dute zertan positiboak izan.
- Administrazioa atzera egiten ari da zeharkakotasunaren alde eman diren urrats txikietan; esaterako, honi buruz aholkatzen zuen figura egon da orain dela bi urte arte berrituz guneetan. Garrantzizkoa da GH hezkuntzaren inguruko ikuskeratza berreskuratzea.
- LOGSEren printzipioak (besteak beste, zeharkako ildoak legez onartzeko bide ematen zutenak) zuzendu egiten ari dira, baina GHk presente jarrai dezake, hezkuntza planteatzeko forma orokortzat hartzen bada. Inongo hezkuntza ez da neutroa. Hausnartu egin behar da alde aurretik zer eskola mota nahi dugun, zer hezkuntza mota nahi dugun, zer alderdi etikotan oinarrituko dugun irakaskuntza...
- GHren presentziak eta tratamenduak irakasleen kezken, motibazioaren eta esperientzien mendean egoten jarraitzen du eskolan hein handi batean. Konpromisoa hartuko duten talde egonkorak behar dira, GH prozesuen jarraitutasuna berma dezaten.
- GHrekiko konpromisoa duten irakasleek aholkularitza teorikoa –Zer da GH? Zer paradigmatan oinarritzen da?– eta praktikoa –Nola egokitu GH ikasgelako egoerara?– behar dute.
- Partaidetza aktiboa sustatu eta hari eutsiko dioten tresnak eta abileziak eskuratu behar dira.
- Irakasleen heziketa bezain garrantzitsua da heziketaren katea, jakintza ikastetxean sozializatu egin dadin bermatzeko. Bestela, ezin zaie jarraitutasunik eman GH prozesuei.
- Proposamenik interesgarrienak curriculum arruntari buruzkoak dira, ikasleen egoerara eta ikasgelako ingurunera hurbiltzen direnak, baina, horretarako, GGKEek proposamenak egin behar dituzte, irakasleekin batera.
- GGKEen arteko eta GGKEen eta beste eragile batzuen arteko koordinazioa eragozten duten alderdiak: epe ertaineko eta epe luzeko plan estrategikoak eta komunikazio prozesuak.
- Proposamen hauek irakaskuntzara ere egokituko badira, ikastetxeetako praktikaren beraren ondorioz egin beharko lirarteke.
- Gero eta baliabide gehiago daude euskaraz, baina euskarazko baliabideen eta gaztelaniazko baliabideen arteko proportzioa ez dago orekan oraindik ere. Hizkuntz ingurunea ez da alde batera utzi behar, jarduerak eta materialak euskarazkoak ez badira, aukera asko alperrik gal baitaitezke.
- Ikastetxeetan egiten diren ekimen asko bereizirik dira eta ez dira programazio sistematikoaren ondorio, eta hori, GHrako, bereizirik eta jarraitua elkarren artean harremanetan jarri behar diren ustearen aurkakoa da.
- GH jarduerak koordinatzeko lanak ez dira onartzen erakunde arloan eta ez dira sartzen lan ordutegian.
- GH lantzeko baliabide (material didaktiko) ugari daude, baina irakasleek ez dute haien berri neurri handi batean. Hau da, baliabideak zabaldu eta banatzeko bideak berriro planteatu eta koordinatu egin behar dira, heldu egin daitezke.